

GURE IRAKURGELA

SASI GUZTIEN GAINETIK

Manu Lopez Gaseni

Ilargiaren alaba” Toti M. de Lezea idazle gasteiztarrak duela hiru urte gaztelaniaz argitaratutako “La hija de la luna” eleberrri historikoaren euskal bertsiola da. Egileak aipatu generoa landu du batik bat, arrakasta handiko obren bitartez, hala nola “La calle de la judería”, “La herbolera”, “A la sombra del templo”, eta abar. Horien guztien aurrean, ordea, “Ilargiaren alaba” gazteentzat pentsatu eta idatzia izan zen, eta



Liburua:
“Ilargiaren alaba”
Egilea: Toti Martínez de Lezea.
Itzultzailea:
Jose Luis Padron.
Argitaletxea:
Alfaguara-Zubia, 2006.

halakotzat argitaratu da gaztelaniaz zein euskaraz.

Eleberrri honetako testuinguru historikoa XVII. mendean hasieran Pirinioen bi aldeetan sinismen paganoen aurka Elizak egindako sarraskien ingurukoa da, oso bereziki Valle Alvarado inkisidoreak Zugarramurdi inguruan atxilotu, torturatu, Logroñora eraman eta sutzarrean erretako emakumeen historia.

Testuinguru historiko horretan, diodanez, Madaleneska gaztea protagonista duen fikziozko istorio bat txertatzen da. Madalenen ama izan da atxilotuetako

bat, eta haren atzetik abiatu da paturik ankerrenetik askatu nahian. Bidean hainbat laguntzaile eta beste hainbeste aurkarirekin topo egin du, horien artean «aspaldian jasotako jakintza batek batutako» bi andre zaharrekin, Madalenek bere helburua lortzeko ezinbesteko laguntzaileak. Lortu du ama askatzea, eta herrira itzuli dira; han, ordea, ezer ez da lehen bezalakoa. Sorgin-ehizak betiko aldatu ditu hango biztanleak.

Ikusten denez, eleberrri historikoa baino gehiago (non gertakizun historiko hutsak era nobelatuan kontatzen diren) “fikzio historikoa” da

Ilargiaren alaba hau, Martínez de Lezeak idatzitako beste guztiak bezala, bide batez esanda.

Hala ere, lana hain ondo dokumentatuta egotearen ondorioz, ulertzen zailak diren hitz asko erabiltzen dira, eta horien esanahia azaltzeko glosario bat jarri behar da liburuaren amaieran.

Itzulpena ere, zuzena izan arren, jatorrizko testuari oso atxikita dago, eta zenbaitetan zurruntasun inpresioa ematen du.

Laburbilduz, gure historia-ko garai ilun bat ulertzen laguntzen digun obra entretenigarria da Ilargiaren alaba.